

“Barkamena norberaren ekimen pertsonala da”

Edurne Brouard Aldamiz | Korrikazaina

HBko parlamentaria izan zen 87tik 90era.

Ordutik hona euskalgintzarako bizi da.

15. Korrika berak koordinatu du.

FERMIN ETXEGOIEN

Argakia: Iñigo Azkona

Zu ez zara izango... euskaraz “konpromiso” egiten duten horietariko bat?

“Konpromiso” egiten diren guztiak une konkretu eta laburretarako izaten dira. Nire konpromisoa betiko da.

Zein da euskararen etsairik amorratuena?

Euskara normalizatuta dagoela esaten digun lelo ezku-tu hori.

Karrantzan euskara “normalizatzea” zer litzateke?

Karrantzan eta edonon, “normalizazioa” hitzak berak dioena baino ez da: normaltasunez aritu ahal izatea, geure bizitzaren esparru eta une guztietan erabili ahal izatea arazorik gabe. Leku batzuetan besteetan baino zailagoa izango da...

Euskara desagertzen den egunean milioi bat lagun joango da Korrikara, entzun nion behin batean Atxagari...

Premisa da okerra. Ez dugu euskara desagertzen utziko.

Edurne moduko bilbotarrentzat... Zazpi Kaleetan al dago zuen Obaba?

Ez naiz horren bilbotarra. Bilbo ere euskalduntzen doan hiria da. Zazpi Kaleetan, akaso, inon baino gehiago entzuten da, baina ez ahaztu orain Metroa dagoela, eta minutu gutxitan punta batetik bestera mugitzen gara euskaldunak.

Agian bilbotar peto batentzat Bilbo ez dago Euskal Herria barruan, baizik eta alderantziz: Euskal Herria Bilbo barruan!

Bilbo Euskal Herrian dagoela ezin ukatu, baina ez pentsa! hainbeste Euskal Herri dago Bilbo barruan!

Bilbon eskatu zien barkamena Lehendakariak ETAK hildakoen senideei. Barkatu galdera: zuk barkatu al duzu?

Barkamena norberaren ekimen pertsonala da. Horregatik harritzen nau inoren izenean barkamena eskatze horrek. Une honetan, orrokorrean, daukagun egoerari aurre egiteari garrantzitsuago deritzot neure egoera pertsonala begiratzeari baino.

Konponbidearen mesedetan hartuko zenukeen lehen erabakia...

Begira, hemen denok dugu geure erantzukizuna, eta denok aportatu behar dugu. Baina erantzukizunak eta erantzunkizunak daude. Jezar daitezten behingoz ahalmena dutenak!

Sententzian jasota ez dagoen zer dakizu aitaren hilketaz?

Edozein euskal hiritarrek dakiena: ia dena.

Ia?

Bai, ia. Irabazten ez dugun bitartean ez dugu aukerarik izango Estatuaren artxibo sekretuetan arakatzeko...

Hauteskundeez zer espero?

Bakoitzak bereari botua eman ahal izatearekin konformatuko nintzateke momentuan.

Demagun ANV eta ASB alderdien artean hautatu behar izatea... Bai dilema hamletianoa!

Ea Conde Pumpidok, Blancok eta Azkunak entzuten dizuten! Baina 170.000 pertsonen eskubideez ari garenean txantxetarako gogo gutxi geratzen zait.

Fikzioaz mintzatu garenez, emaidazu zure gogoko eleberri baten izenburua...

Sarri pentsatu izan dut galdera hau egingo balidate zer erantzungo nukeen. Munduko literaturan hainbeste eleberri bikain egonda bakarra aukeratzea ezinezkoa zait niri behintzat.

Euskal futbolaren krisi gorriaz ere galdetu nahi dizut...

Krisietatik indartuta ateratzen omen gara euskaldunak...

Omen?

Omen.

Amen?

Bukaeran esaten da hori eta ni primeran pasatzen ari naiz solasaldi honekin. ■